HIZKELAN4 2019

2019-10-15 Gasteiz

Lanbide Heziketa eta Lan Mundua euskaratzen

Urtero Lanbide heziketa eta lan mundua euskararekin eta hizkuntza kudeaketarekin lotutako Hizkelan Jardunaldia egiten da.

Aurten Ekimen hau Lanabes egitasmoaren baitan kokatzen da, **urriaren 15ean,** egingo da Gasteizen, Egibideko Nieves Cano ikastetxean.

Bertan batuko dira Lanbide Heziketako, enpresetako, hizkuntza zerbitzuetako, erakundeetako... 90 eragile eta protagonista.

Zu ere gonbidatuta zaude, ZATOZ. **IZEN-EMAN hemen:** https://forms.gle/zryTGcY1yC981rpL9

HIZKELAN4 2019 - EGITARAUA

9:15 Sarrera
Xabier Lopez de Santiago, Hetel-Egibide Lanbide Heziketako Zuzendaria
Ainitze Blanco Etxaleku, LANEKI Elkarteko Presidentea
Ricardo Lamadrid Intxaurraga, Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaria
Lexuri Ugarte Aretxaga, Arabako Foru Aldundiko Euskara eta Gobernu Irekiko Zuzendaria

9:35 Euskara Sarean: non gaude eta nola eragin
Josu Waliño Pizarro, PuntuEUS Fundazioko Zuzendaria

9:45 Mahai ingurua: erakunde, enpresa eta ikastetxeen egitasmoak
Lexuri Ugarte Aretxaga eta Kepa Altube Eraña, Lanabes
Josune Zabala Alberdi, Hizkuntza Ikerketa eta Koordinazio Zuzendaria
Santi Uribe Laka, Normalkuntza arduraduna Mendizabala LHII-n
Moderatzailea: Josune Velez de Mendizabal, aktorea eta kazetaria

10:15 Metodologia berritzaileekin lanean
Hiztegi kolaboratiboa. Iker Manterola, Elhuyar
Visual Thinking-a. Miryam Artola Dendaluce , Muxote Potolo bat
Heziraul. Olatz Imaz Mendizabal, Laneki elkartea

11:00 Kafea

11:30 Mahai ingurua: Zibersegurtasuna, sarean nola gabiltza?
Xabier Martin, Iparra.eus
Ugaitz Naya, Egibideko irakaslea
Iratxe Lejarreta, Maristak-Durango irakaslea
Josu Fdez de Arroiabe, Zubiri Manteo BHIko irakaslea
Moderatzailea: Mikel Martinez Zuazo, Egibide Arriagako irakaslea

12:10 Araba industria 4.0 .
Xabier Lopez de Santiago, Hetel-Egibide Lanbide Heziketako Zuzendaria

Oroigarria ematea, itxiera

NORENTZAT

Euskaraz lanean ari diren edo euskaraz hasi nahi duten enpresa, lantoki, LHko ikastetxe edo erakundeentzat; bereziki, Lanbide Heziketako ikastetxeetako Hizkuntza Normalkuntza teknikari eta zuzendarientzat, Lantokiko Prestakuntza eta Prestakuntza Dualeko arduradunentzat, Hizkuntza Normalkuntza planetan murgildutako enpresa, erakunde eta elkarteetako arduradunentzat, eta orokorrean euskara eragile, teknikari eta besterentzat.

HELBURUA

Lan mundua euskalduntzearen esperientzia honetan dauden proiektu eta proposamenak aurkeztea, ideia berri eta praktika onak partekatzea, ekarpenak jasotzea eta euskalduntze bidea errazteko baliabideen berri ematea.

GALESTARREN BISITA

Galeseko Lanbide Heziketako ordezkaritzak Laneki elkartea ezagutu du. Tknikan bildu ginen, LHn euskaraz nola ari garen azaltzeko. Galesaren normalkuntzan aurrera egiteko ideiak jaso zituzten.

Ikus Laneki-jakinbai.eus bideoa: https://youtu.be/YyB7RiDZ2X4

Jakinbai buletin@

LNKi 2019/8. buletina IRAILA

IKASMATERIAL BERRIAK jakinbai.eus

IKASMATERIAL BERRIAK jakinbai.eus

jakinbai
LANBIDE HEZIKETARAKO EUSKARAZKO MATERIALA

LANEKI

SORTU KONTU BERRIA » SARTU

Sarrera | Biltegia | Material Berriak | Prestatze-bidean | Zurgintza Hiztegia | Albisteak | Dokumentazioa | HIZTEGIA

Sarrera / Material Berriak

Material Berriak

Sortutako material berriak

Finantza kudeaketa: ariketak

Finantza kudeaketako ariketak

Jakinbai Laneki — 2019/09/29

JAKINBAI ZIURTAGIRIA

Produktu mekanikoen diseinua-Makinen elementuak

Ohikoenak diren elementu mekanikoak aztertzen ditu liburu honek. Kalkulo zehatzak egiten dira, irudi eta azalpenekin.

Jakinbai Laneki — 2019/09/26

OINARRIZKO EDUKIA

LABORATEGI TEKNIKAK

Diziplina askotako laborategiak daude eta hainbat jardueratan aritzen direnak: elikadura-produktu berriak garatzen dituzten laborategiak, materialen kalitate-kontrolekoak, uren analisia egiten dutenak, analisi klinikoak egiten dituztenak, anatomia patologikokoak.

Sareko Sistema Eragileak

Sareko sistema eragileak lanaren edizio honetan, erabiltzaileari erakutsi nahi diogu sistema eragileen bilakaerak lotura zuzena duela hardwarearen bilakaerarekin, baita aplikazioen softwarearen bilakaerarekin ere, nola ez.

ADI urrian!

Deialdia zabalduko dizuegu: Material berrien eskaera egin dezazuen.

LANeKi Jakinbai buletin@ jknb+

LNKi 2019/8. buletina IRAILA

Lanbide Heziketa D-ereduan

Zergatik?

- Gero eta enpresa gehiago direlako Hizkuntza kudeaketa planak dituztenak, eta kontratazio berrietan euskara eskatzen dutenak.
- Kontratazio publikoetarako euskaraz ikastea edo jakitea ezinbesteko baldintza bihurtzen ari delako: Ikusi Osakidetzako eta Kabia erakundeetako hizkuntza irizpideak (3.orria).
- Lan-kontratazioan aukera gehiago izango duelako euskara menperatzen duen pertsonak.
- Bezeroen aurrean lan egiten denean, bezeroak aukeratzen duen hizkuntzan artatzeko eskubidea duelako, eta asebetetze handiagoa izango du.